

TOKIAN TOKIKO HIZKUNTZA AKTIBAZIORAKO GAKOEN BILA lantegia

EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA JARDUNALDIA 2018/11/06, Bizkaia Aretoa EHU (Bilbo)

Berlaratuak: Inma Errea (Iruñeko Udala), Garbiñe Mendizabal (Gipuzkoako Foru Aldundia), Iñaki Biain (Hezkuntza), Maite Asensio (Urtxintxa), Estiñe Astorkia (Artez), Arrate Illaro (Topagunea), Jasone Mendizabal (Topagunea), Miren Artetxe, Nekane Arratibel (HUHEZI), Josune Etxebarria (Eusko Ikaskuntza), Mertxe Mugika (AEK), Maddi Etxebarria (Elhuyar)

Aktibazioko lan-taldetik: Zesar Martinez (EHU), Amaia Balda (Emun), Helene Armentia (Elhuyar), Mikel Ozaita (Topagunea), Joxean Amundarain (GFA) eta Imanol Larrea (SLK)

1. Proiektuaren aurkezpena

Proiektu taldeko kideek proiektua aurkeztu dute:

- Imanol Larrea: proiektuaren kokapena, faseak eta metodologia
- Amaia Balda: aktibaziorako gakoak
- Helene Armentia: Arrasateko esku-hartzea
- Mikel Ozaita: Tolosaldeko esku-hartzea
- Zesar Martinez: metodologia proposamena

2. Ekarpenak

Bertan dauden guztiek hitz egin dute eta ekarpenak egin dituzte:

- Nola integratu alde negatiboak (beldurrak, aurreiritziak...)? adibidez, Nafarroan oso aktibo dira euskararen aurka ari direnak eta horrek sarritan beldurra sortzen du eta asko oztopatzen du euskaltzaleen eta erakundeen jarduna.
- Nor egotea nahi dugun planteatu beharko genuke eta egotea nahi dugun jende hori egon dadin nola konbentzitu pentsatu.
- Interesgarria izan da batez ere metodologia zirriborroa.
- Kontrolatu ezin ditugun baldintzak ere oso garrantzitsuak dira.
- Irekitasuna behar da jendeak parte hartzeko gogoia izan dezan.
- Txinparta sortzeko bide guztiak dira garrantzitsuak: asmatu behar da jendea erakartzen eta gainera ilusioari eutsi egin behar zaio.

- Kontraesana dago: baditugu gakoak, baina funtzio hau herritar solaren gain uzten da? horrek beldurra sor dezake.
- Prozesua oso osatua ikusten da; elkarri oso lotuak daude elementu guztiak. Horrek agian zurruntasunerako arriskua dakar?
- Planteatu behar da nola ahaldu jendea kanpoko eragileen (adibidez, aholkularitzen) laguntza barik.
- Esperientzia arrakastatsuak soilik aztertu dira gakoak identifikatzeko?
- Kanpo balorazioa ere behar da, ez soilik barrukoa; heteroebaluazioa oso erabilgarria da (adibidez, ekimenean parte hartu dutenek egina, baldin eta talde eragilean ez badute parte hartu; beste aukera bat da herritarrei eskatzea ebaluazioa egiteko).
- Ebaluazioa ez da bakarrik bukaeran egin behar, prozesu guztian txertatu behar da.
- Planteatzen den prozesua ezaguna da beste arlo batzuetan ere.
- Hasieran garrantzi handia du talde motor txiki horrek.
- Talde eragileko osagai desberdinek ere sekulako garrantzia dute.
- Atariko mimo handiz landu behar da.
- Kontuz ibili behar da freskotasuna galtzearekin: orekak mantendu behar dira.
- Kezka bat metodologiaren inguruan: baliabide asko behar da hau guztia egiteko; proiektu honetan kanpoko esku-hartze bat egon da eta baliabideak egon dira, baina hori ez da beti horrela izaten.